

ALDAKETA KLIMATIKOAREN EGOKITZAPEN ETA BARETZE ESTRATEGIAK ESPAZIO ANTOLAKUNTZAN

PRAKTIKA EGOKIEN HAUTAPENA ETA ANALISIA, ETA EAEko LURRALDE ETA HIRIGINTZA PLANGINTZAN
APLIKATZEKOAK IZANGO DIREN ERIZPIDEEN IZENDATZEA

José María Ezquiaga Domínguez Jaunak, Arkitekturan Doktorek, igorrita. Javier Barros Guerton Arkitekto jaunaren, Vadim Litovchenko urbanista jaunaren eta Marina Ambrosio González andere Ingurugiro Zientzietan Lizentziatuaren elkarlaguntzarekin. Euskal Gobernuaren Ingurugiro eta Lurralde Antolamendu Departamentuaren, Lurralde Antolamendu Zuzendaritza Orokorrak hala eskatua.

2010ko Abendua

1	Sarrera	5
1.1	Helburu eta testu-ingurua	5
1.2	Klima Aldaketaren inguruko oinarritzko kontzeptuak	¡Error! Marcador no definido.
1.2.1	Definizioa.....	6
1.2.2	Klima egokitzapen eta baretzea.....	6
1.2.3	Hauskortasun eta resilientzia	6
1.2.4	Baretze eta moldatzearen arteko desberdintasun espazialak	7
2	Lanaren emaitzen sintesia	¡Error! Marcador no definido.
3	Lurralde eta hirigintza antolamenduan aldaketa klimatikoaren inplikazioak.....	8
4	Aldaketa Klimatikoaren Euskal Legearen proiektua textuinguru internazionalen	¡Error! Marcador no definido.
5	Aldaketa Klimatikoaren erronkaren aurrean euskal antolamendu espazialaren sistemaren eraldatzea	11
5.1	Oinarriak.....	¡Error! Marcador no definido.
5.1.1	Baretzea	12
5.1.2	Moldatzea.....	14
5.2	Legegintzara barneratzeko erizpideak	14
5.2.1	Lurralde antolamendua	14
5.2.2	Hirigintza	15
6	Antolamendu lanabesen edukin berriak	17
6.1	Lurralde antolamendua.....	¡Error! Marcador no definido.
6.1.1	Lurralde Antolamenduaren Ildoa.....	17
6.1.2	Lurralde plan partzialak	17
6.1.3	Lurralde Plan Sektorialak.....	20
6.2	Hirigintza	22
6.2.1	Plangintza orokorra	22
6.2.2	Plan partziala	24
6.2.3	Hirigintza Proiektuak	25
7	Eranskinak.....	¡Error! Marcador no definido.
7.1	Hiztegia.....	26
7.2	Baso-baretzea	¡Error! Marcador no definido.
7.2.1	Durangoko eremu funtzionala.....	27

7.2.2	EAEko basoen CO2 xurgapen gaitasuna	36
7.2.3	zuhaitz eremuen CO2 xurgapen gaitasun erreferentzia baloreak.....	50

1 Sarrera

1.1 Helburu eta testu-ingurua

Lanaren helburua da **Aldaketa Klimatikoaren baretze eta moldatze irizpideen adieraztea, berauen txertatzeko EAEko espazio antolamendu figuretan**, nazioarteko esparruan emandako praktika egokien analisisen medio. 2008an burututako “legegintza, lurralde eta Hiri Plangintza, baita egituraketa administratibo arloetan egindako klima-aldaketari buruzko europar ekimenen ikerketa laburbildua eta azterketa konparatua” dokumentua erdietsitako emaitzak kontutan izan dira bai eta Zuzendaritza Orokorraren irizpidearen arabera ‘Aldaketa Klimatikoaren eragina Udal eskalan. Egokitze irizpideak hiri antolakuntza esparrutik’ Ihobe-rentzat 2009-2010 urteen baitan jorratutako lanaren zenbait eduki.

Aldaketa klimatikoa edo jasangarritasunaren helmuga kualitatiboa kuantifikatzeko aukera Aldaketa klimatikoaren problematika jasangarritasunaren espezialitate bat da, bere hiru osagarrietan intzidentzia duena (ingurugiro, sozial eta ekonomikoa). Negutegi efektuko gasen emisio globalaren eta biosferak hauek (baretze klimatikoa) xurgatzeko gaitasunaren arteko orekak jasangarritasunarentzako bi giltzarri dakartza:

- bere inpaktuen CO2 baliokidearen bidez kuantifika daiteke urbanizatzearen jasangarritasuna.
- Denbora aldagarri zentral bat da: jasangarritasun klimatikoa ez da emisio eta xurgapenen arteko oreka soilik, aintzakotzat hartu beharrekoak baitira bi prozesuak gertatzen diren abiadura.

Klima aldaketa eta hiri fenomenoek konplexutasuna jorratzeko beharra Hurbiltze kuantitatiboak hiri eta lurralde errealitatearen ezagutza behar du, halaber datu iturrien beharra duena. Gainera, politika publikoen formulazioa ezin daiteke mugatu emaitza numerikoetara, izan ere jada efektuak sortarazten ari den aldaketa klimatikoari aurre egin behar dio (egokitzea) eta gastu publikoaren lehentasun erabaki zailak hartu behar ditu.

Honela egokitzeak baretzearen izaera desberdina hartzen du, zeinak, isurpen eskubideen merkatuko dimentsio ekonomiko eza gehiturik, areagotu duen orain arteko garapen teoriko eta legegilea ez hain zorrotza izatea. Alabaina, baretzea eta egokitzea txanpon beraren bi alde dira, eta posible da beraien barneratzea akzio bateratuetan, 'azpiegitura berdea' kontzeptuak erakusten duen bezala.

Marko internazional berri baten gabezia arazoa Gaur egun (2011) bada arazo bat, trantsizio garai baten erakusle. Negutegi efektuko gasen isurpenen kontrolen material konpromiso internazionalen trantsizio garaien erakusle: Kopenhageko konferentziaren gainbeheraren eta Cancún-goaren zehaztapen eskasaren ondoren, **Kyotoko markoak egin du erreferentzia lana orain arte. Eta, bere amaierara iristen ari garela, oraindik ez daude argi estatu eskalako isurketa zenbatekoak, eta ondorioz ezta EAE eskalakoak ere.** Ezjakintasun honen amaiera iradokiko duen ortzi-muga ezak, izaera trantsitorioko neurrien definitzearen beharra gomendatzen du.

Lurralde Plangintza isurpen kuoten gestiorako lanabes gisa Nazioarteko erreferentzia marko eza, kuantitatibo nahiz tenporala, ez da eragozpena ulertzeko lurralde plangintza instrumentu kapaza dela dagozkion aktibitateen isurpen kuoten banaketak behar bezala arautzeko. Ideia koherentea da hirigintza hazkunderaren kontrol sistemarekin eta bere externalitate negatiboekin jada existitzen dena LAG-etan (Lurralde Antolamendurako Gidalerroak). **Euskal kompetentzia eremuak berak egiten du eskala minimoa izatea zeinetatik lurralde mailako kontrol koherente bat ematen ahal zaion**, izan ere erabaki hauen eskumena planeamendu municipalen utziko balitzaie hiru administraziok lukete kontrola (lurralde historikoak) bakarrak beharrez (EAE).

Eduki hauek planeamenduan sartzeak mintzaira berritzaileak berezko duen zailtasuna dakar. Mintzaira berritzaileak zeinak antolamendu tekniketara bere garaian ingurugiro irizpideak sartzeak sortarazitako adinako inpaktua bideratuko duten. Kontzeptu hauek modu ulergarrian plazaratu nahi izan dira eta errazagoa izan dadin dokumentuaren amaieran hiztegi bat bideratu da.

1.2 Klima Aldaketaren inguruko Oinarrizko Kontzeptuak

1.2.1 Definizioa

Klima Aldaketa: Klima Aldaketaren inguruko Ikerlari Talde Internazionalaren arabera, **klimaren egoera arruntean garrantzizko bariazio estatistiko gisa edo denbora epe besteko egoeran epe jarraian (hamarkada edo gehiago) ematen den haren aldakortasun gisa defini daiteke Klima Aldaketa.** Barne prozedura naturalen arabera izan daiteke klima aldaketa edo kanpo behartze aldaketengatik, edo bestela atmosferaren konposaketan **aldaketa iraunkor antropogenikoengatik** edo lurren erabileragatik... **Bereizketa egiten da 'Klima Aldaketa', atmosferaren konposizioa aldatzen duten giza jardueri egotzia, eta kausa naturalei dagokien 'aldakortasun klimatikoaren' artean.**

1.2.2 Klima baretze eta egokitzeak

Baretzea: isurpen netoen balantze jaistea Baretzearen ekintzak negutegi efektuko gasen giza produkzio prebisiblean eragiten dute bai eta gas hauen xurgatze gaitasunean berauen atmosferako **kontzentrazioa jaisteko.** Hustubideei dagokienean, lurpeko “karbono bahiketa” tekniken garapen askiaren faltan, **bide jorratuena basoena da,** non garrantzia berezia duen erabilitako espezie begetalak.

Egokitzea: Klima aldaketaren efektuak eusteko gaitasunaren akotazioa Egokitzea sistema batek klima aldaketara moldatzeko duen gaitasuna da (aldakortasun klimatikoa eta estremoak barne), **balizko kalteak arintzeko, aukerak aprobeitzatzeko, edo honen ondorioei aurre egin ahal izateko.** IPCC-aren arabera “**natura edo giza sistemen ingurugiro berri edo aldatu bati egokitzea**”. Egokitzeaz hitz egiterakoan kontzeptu berriak plazaratzen dira, kalteberatasuna edo erresilientzia kasu.

1.2.3 Kalteberatasuna eta erresilientzia

Egokitzearen gaian hertsiki lotutako bi kontzeptu barneratzen dira: **lurralde jakin baten klima aldaketak bideratutako kalteberatasuna eta erresilientzia.**

Kalteberatasuna: Kalteberatasun gisa ulertzen da **sistema baten suszeptibilitate edo ez-gaitasun maila klima aldaketaren ondorio kaltegarri** eta, bereziki, klima aldagarritasun eta kanpo fenomenoetara aurre egiteko. Kalteberatasuna zenbait faktoreren menpe egongo da:

Klima aldaketaren efektuei aurre egiteko suszeptibilitatea

Esposizioa: natura eta sistema batek giro, ekonomia, sozial o politiko estres bat pairatzen duen gisan ulertua.

Sentikortasuna: sistema bat ze neurritan izan den aldatua edo ze neurritan izan den ukitua.

Moldaketa gaitasuna: Sistema batek duen gaitasuna eboluzionatzeko eta egokitze egoera aldagarri (inguru-giro aldaketak nahiz politiko, ekonomiko, sozialak).

Erresilientzia: Erresilientzia gaitasun bat da, ahalbidetzen diena sistemei kanpo gertakari eta estresak sortutako perturbazioak irensten, berregokitzen funtzio eta ezaugarri nagusiak mantentzearen.

gaitasuna perturbazioen aurrean

1.2.4 Baretzearen eta egokitzearen arteko ezberdintasun nagusiak

Baretze neurrien eraginkortasuna ez da “per se” bere kokaleku geografikoak baldintzatua, baizik eta igorriak edo xurgatuak izan diren negutegi efektuko gasen zenbatekoak baldintzatua. Baretzearen planifikazioak ez du bilatzen emisio eta inmisioak eskala nazionalera orekatzea eskala dimentsional parekoena izango duelakoan, baizik eta kontrol eraginkor bat erraztuko duen barruti administratibo baten existentziarekin kontatu duelako (orain arte). **Egokitzeak konplexutasun espazial askoz zabalagoa dakar, izan ere mota desberdinetako klima inpaktuen arteko sinergia negatiboak substantzialki handiagoak izan daitezke eta baliabide ugari gune espazial anitzetara eragin diezaiekete:** ibai uholde arriskuak milaka kilometro karratuko ibai-arro bati eragin diezaioke, eta bitartean zoruaren hezetetasun alterazioak sortarazitako ezezagokortasun geologiko arriskuak erabat lokalizatuak izan daitezke.

2 Lan-emaitzen sintesia

Alde batetik konpromiso internazionaleri erantzuteko behar bat da lurralde eta hirigintza planeamenduan klima aldaketaren aurkako neurriak sartzea. Bestetik, ugaltzen ari diren arrisku zalantzazkoei aurre egiteko modu bat da. Klima aldaketaren kontrako borrokaren beharrek lurraldeen informazio urbanistikora hurbilketa kuantitatibo berri bat derrigorrezko dute, hirigintza eta ingurugiro legislazioan sarturiko ingurugiro garapen jasangarritzko exijentzia kualitatiboen objetibazio numerikoak suposatzen duen determinazio normatiboa modu kontsekuentean sostengatzeko (oraindik partziala izanda ere).

3 Klima aldaketaren inplikazioak lurralde eta hirigintza plangintzan

Klima aurreikuspenen zehaztasunaren areagotzeaz baliatzen da medio urbanoaren gainean klima aldaketak eragingo dituen etorkizuneko inpaktuen estimazioa, berauetan faktore naturalez gain giza jardueren intzidentzia hartzen da kontutan. Zein-nahi kasutan, eskura dauden iragarpenek diotenez jarraian datozen parametroen arabera eboluzionatuko du euskal klimak mende honetan:

- 1 eta 3,5°C tarteko tenperatura igoera
- Itsasoaren maila igotzea 1m baino apalagoa.
- Urteko eurien gutxitzea %15 eta %20 bitarte, bereziki neguan kontzentratuaz.
- Muturreko kasuetan baso-masen eboluzioa sasitza aldera, espezien lekualdatzea termofiloagoak direnengatik eta sute arriskuen igoera.
- Nekazaritza jardueren alterazioa lehorrengatik (Araba) eta ibai bazterreko landaketetan uholdegarik (Bizkaia eta Gipuzkoa). Zenbait uztetan etekin galerak.
- Ez-egonkortasun geografikoak sortarazitako ezbeharren areagotzea.
- Aglomerazio handietan hiri-bero irlagarik balizko inpaktua.

4 Klima Aldaketaren Euskal Lege proiektua testuinguru internazionalan

Atzerriko legislazioen azterketak (Hego Australiako estatu, Britainia Handia, Eskozia, Frantzia, SaoPaulo-ko estatura, Kalifornia, Japonia) klima aldaketaren inguruan (esparru zabaleko lege gisa, beste testu xehatuago batzuen independentziarekin) **erakusten du interes internazional argi bat eta material sakontasun aldakor bat:**

- Ikerturiko lege guztiek **emisio galera helburuak lehenesten dituzte urte base batekiko**, ezberdina kasu guztietan (bateratua Europar Batasuneko adibideetan). Energia eta isurpenei dagozkien helburu independenteak ezartzen dituzte lege guztiek.
- **Azterturiko bi legek (Hego Australia eta Erresuma Batua) ez dute modu esplizituan aipatzen Lurralde eta Hirigintza planeamenduaren gaia**; beronen erregulatzea modu koordinatuan gauzatzen da baina legislazio desberdinean.
- **Espazio planeamenduaren esparruan gehien zehazten duena da legislazio kaliforniarra, mugikortasun esparruen arabera ezarriaz isurpen automobilistiko topeak eta irizpide jasangarrien aplikazioa sustatuaz hiri garapen berrietan, honetarako ingurugiro ebaluazio osoa egitetik libratuaz hala betetzen dutenei.**
- Bereziki argi dago kasu britainiarrean **klima aldaketaren materialko aktuzioen dimentsio soziala, zeinak kontutan hartzen dituen kalifikazioaren garestitzea ekarriko duten karbono aurrekontuak.**
- Karbono aurrekontu sistema da landuena.
- Interes handiko lurralde hurbilketak dituzten ereduak daude, Plan Climat Territorial frantsesa kasu.

Plan Climat Territorial frantsesaren eredua:

- 1- Klima aldaketaren kontrako borrokaren modeloaren eraiketa parte-hartzailea.
- 2- Sektore kapituluak:
 - a. Lurralde eta Hirigintza Antolamendua
 - b. Eraikuntza (berria eta egungoa)
 - c. Garraio eta mugikortasuna
 - d. Nekazaritza, basogintza, berdegune eta bio-aniztasuna
 - e. Energiaren sorkuntza eta banatze bertakoa
 - f. Produkzio eta kontsumo modu jasangarriak
 - g. Hondakinak
 - h. Bertako ekonomia
 - i. Neurri klimatikoen finantziazioa

Klima Aldaketaren Euskal Lege aurreproiektuak adibide internazionalak arauturiko esparruak hartzen ditu aintzakotzat. Europako gizarte garatuenei parekatzeko aurrera pausua suposatzen du, segidan aipatutako gidalerroetan aurrera egiteko beta iradokiaz:

- **Klima Aldaketaren kontrako borrokarako Euskal Planarentzako zehaztasun handiagoa. Plan Climat Territorial frantsesaren modelo proposatzen da**
- Post-Kyoto konpromisoen markopean **Estatuarekin artikulatzea isurpen beherapen helmugak**
- **Baretze helburuen lurralde desagregazio aurreikuspena, kontuan hartuz LAG-etan (Lurralde Antolamenduko Gidalerroak) definituriko eremu funtzionalak. Izendatzeko formula bat ezarriko da**
- **Egokitze lehentasunen dimentsio sozialaren kontsiderazioa, kontutan hartuz baliabide urriko biztanleen arazoak eta eraikuntzaren errehabilitazio termikoa zabalduaz**
- **Lurralde eta Hirigintza antolamendu planen identifikazio espezifikoa**

5 Euskal espazio planifikazio sistemaren transformazioa klima aldaketaren aurrean


5.1 Oinarriak

5.1.1 Baretzea

Lurralde eta Hirigintza antolamenduaren bidezko baretze proposamena jarraian datorren taulan biltzen diren oinarrizko irizpideen inguruan artikulatzen da, zeinak kontutan hartzen dituen egungo antolamendu lanabesak.

Lanabesa	Funtzioak
Klima Aldaketa Legea	Oinarrizko irizpideak eta artikulazioa estatuarekin
K.A.-ren kontrako borrokaren Euskal Plana	Karbono aurrekontua, lurralde antolakuntza eta hirigintzarako partidak
Lurralde Antolaketa legea	Irizpideak lurralde antolamenduko baretzeetan
Lurraren eta Hirigintzaren legea	Hirigintza koherentzia lurralde planekiko
LAG (Lurralde Antolaketa Gidalerroak)	Karbono aurrekontuen lurraldetzea
Lurralde Plangintza Partzialak (LPP)	Planeamendu Orokorrei Aurrekontuak asigmatzea
Lurralde Plangintza Sektorialak (LPS)	Problematika sektorialen tratamendua
Planeamendu Orokorrak	Lurzoru mota eta Garapen Planeamenduen arteko aurrekontu banaketa

Garapen Planeamenduak **Karbonoaren aurrekontua diseinuaren baldintza gisa**



Espazio antolakuntzan karbono aurrekontuaren desagregazio eskema.

5.1.2 Egokitzea

Lurralde eta Hirigintza Antolamendu bidezko klimara egokitze proposamena jarraian datorren taulan bilduta datozen irizpideen arabera artikulatzen da, egungo antolamendu lanabesak hartzen dira kontutan:

Lanabesa	Funtzioa
Klima aldaketa legea	Oinarrizko Irizpideak
K.A.-ren kontrako borrokaren Euskal Plana	Egokitze Helburuak. Erreferentzia Markoak
Lurralde Antolaketa Legea	Egokitze lehentasunak plangintzan
Lurraren eta Hirigintzaren Legea	Egokitze lehentasunak plangintzan
LAG (lurralde Antolaketa Gidalerroak)	Lurralde Plangintza Partzialen arteko neurrien artikulazioa
Lurralde Plangintza Partzialak (LPP)	Planeamendu Orokorren arteko neurrien artikulazioa
Lurralde Plangintza Sektorialak (LPS)	Sektore problematiken trataera
Planeamendu Orokorrak	Xehatutako neurrien definizioa
Garapen Planeamenduak	Planeamendu Orokorren parametroen araberako diseinua

5.2 Legegintzara gehitzeko irizpideak

5.2.1 Lurralde Antolamendua

Lurralde Antolamendu legegintzan honako edukiak txertatzearen bideragarritasuna aztertzea proposatzen da:

- **Lurralde Antolaketarako Gidalerroak:**
 - o Klima aldaketaren kontrako borroka eraginkorra bere funtzioetan txertatzea.
 - o Erreferentzia irizpideak LPP-ei isurpen kuotak asignatzeko, jada markatutako hiri hazkunde kuantifikazio lerroan jarraiki.
 - o Gaitz klimatikoen inguruko ingurugiro arazoen soluziorako esparru egokien definizioan txertaketa.
 - o Klima aldaketaren kontrako borroken eratorrien errehabilitazio ustezkoen artean txertatzea.

- **Lurralde Planeamendu Partzialak:**
 - o LPP-etako Ikerketen eta informazio planoen exigentzia gehigarriak.
 - o Klima aldaketaren aurkako borrokaren esparruan hobetzera edo haren kalteberatasuna baretze aldera lagun dezaketen espazioen definizioa.
 - o Baretze politiken txertaketa.

- **Lurralde Planeamendu Sektorialak:**
 - o Bai baretzeko nahiz egokitzeko, helburu zehatzetara zuzendutako irizpideen definizioa.

5.2.2 Hirigintza

Hirigintza legegintzan honako edukiak txertatzearen bideragarritasuna aztertzea proposatzen da:

- **Oinarrizko irizpide legalak:** Klima Aldaketaren kontrako borrokaren planeamenduan jasagarritasunezko irizpide orientagarriak txertatzea.
- **Planeamenduaren oinarriak:** Planeamendu orokorren memoria informatiborako dokumentazio betekizunen zabaltzea.

- **Egitura antolamendua:**

- Eraikuntzaren birziklaketa eta klima aldaketaren kontrako borrokarako lurralde planeamenduan definiturikoak txertatzea egitura antolamendu irizpide orokorren artean.
- Desegokitasunagatik lurzoru ez-urbanizagarri gisa klasifikatu klima aldaketaren kontrako borrokara bideratutako lur-sailak. Bai eta zeinetan eraldaketak eragiten dituen edo ez dituen eragozten klimaren eboluzioak aurreikusten dituen arriskuak: uholde, itsas mailaren igotze, baldintza geoteknikoen alterazio.
- Lurzoru urbanizagarri eta urbanoaren egitura antolamendu irizpidetan energia eraginkor baldintzak eta karbono hustubideetarako lurren eskuratzea txertatzea. Lurzoru ez-urbanizagarrien egitura antolamendu irizpideetan zoru hauen erabilera baldintzak eta karbono hustubideen espazio mugaketa txertatzea.
- Sistema orokorrentzako lursail erreserben gutxiengo estandarretan baretzera zuzendutako baso espazioen txertatzea, isurpenen xurgapen helburura loturik, beste baretze medioak erabiltzeko aukerarekin udalerrian edo esparru funtzionalean ez badira basogintzarako lurzoru egokirik atzematen.

- **Antolaketa xehatua:**

- Arrisku klimatikoaren eraginpeko egungo eraikinen erabilera mugak.
- Eraikuntzan energia berriztagarriaz hornitzeko kontsiderazioak.
- Karbono edo baitako energiaren araberako eraikuntza materialen onargarritasun baldintzak.
- Lineazio edo lur-arraseko baldintzak.
- Arrisku klimatikoaren aurreko kontingentzia planen obligazioa.

6 Planeamendu lanabesen eduki berriak

Oinarrizko informazioa hobetzea eta antolamenduari klima irizpideak txertatzea Klima aldaketaren desafioaren aurrean lurralde eta hirigintza planeamendu dokumentu desberdinen edukiak aberasteko proposamenak egiten dira, baretzea naiz egokitzea kontutan hartuaz. Finean, derrigorrezkoa da, alde batetik, ingurugiroaren baldintza eta harengan inpaktua sortarazten dutenen ezagutza, eta beste aldetik, planeamenduen erabakitzeko ohiko irizpideak aberastea mahai gainean jartzen diren aukera eta mehatxuei aurre egitea ahalbidetuko duen multzo berri batekin.

6.1 Lurralde Antolaketa

6.1.1 Lurralde Antolaketarako Gidalerroak

Honako arloak dakartzate LAG-entzako proposamenek:

1. Energia kontsumoari buruzko esparru funtzionalen eskalari buruzko informazio hobekuntza, negutegi efektuko gasen isurpenak, baso baretze gaitasunak, egungo eraikuntza parkea hobetzearen baretze gaitasuna eta uholde arrisku klimatikoa, itsas mailaren igotzea, egoera geoteknikoaren aldaketak eta hiri bero irla.
2. Aurreikusten den Klima Aldaketaren kontrako borrokarako Euskal Planak jesarriko duen Karbono Aurrekontuan ezarritako isurpen kuoten lurralde desagregazioa.
3. Arautze berezira atxikitako lurzoru rustikoko esparruen akotazioa, zuzenki LAG-etatik edo LPP-etara igorria, baretze nahiz egokitzera zuzenduta.

6.1.2 Lurzoru Planeamendu Partzialak

LPP-en figuren proposamenak honako arloak ditu baitan:

1. **Informazio hobekuntza:**

- a. **Energia kontsumoak biztanle nukleoko.** Derrigorrezko da elkarkidetzaren esparruak definitzea zerbitzu konpainiekin informazio honen aldikako eskuragarritasuna bermatzeko.
- b. **Negutegi efektuko gasen isurpen gune kartografia.** Isurpen errealeen ikerketa zuzen batean edo energia kontsumo eta sostengatzen dituzten energia primario iturrien arteko estimazioan oinarritu daitezkeen kartografia, esperientzia interesgarriak egonik Erresuma Batuan, Frantzia, Herbehereetan eta Estatu Batuetan.
- c. **Baso masen kartografia eta karbono hustubideen gaitasun ebaluatzea. Eta murriztagoa izanagatik ere, nekazaritza sailen xurgatze gaitasunaren ebaluatzea.** Baldintza agrologikoen eta edafologikoen diagnostikoa biharko hustubideen kokapena aurreikusteko, baita kasu horietan non erabilera honen konpentsazio mekanismoen kontabilizazioa posible ez den.
- d. **Komunikazio bideen isurpenen ebaluatzea,** zirkulazioen intentsitate batez bestekoak kontutan hartuz aprobetxatuz argitalpen erregularreko edukiera datuak.
- e. **Eraginkortasun energetiko hobekuntza gaitasun diagnostikoa, bereziki egungo hiri-ehunetan.** Lanabes eraginkorra da, bere bertsio digital berrietan, iturri katastralak eskaintzen duen datu aberastasuna, eskainiaz eraikuntza baldintzen deskripzio xehatua, nahiz adinaren inguruan nola lokalen ezaugarrien inguruan. Honek ahalbidetzen du eraikitako egungo parkearen baldintza energetikoen inguruko hipotesiak definitzea.
- f. **hiri bero-irla fenomenoaren inguruko baldintzen definizioak,** kontutan hartuz zoladura eta eraikuntza material motak bai eta bero antropogeniko eta aireztapen natural iturri anitzak, zeinengan eraikin berrien intzidentzia aerodinamikoa kontutan hartzeko izango den.
- g. iturri ofizial batek sortarazitako **esparruarentzako proiektzio klimatikoak.** materia honetan Britainia Handikoa aurrekari esanguratsua da.

h. Baliabide hidrikoen eskuragarritasun eboluzioaren aurreikuspena.

i. Baldintza hidrogeologiko eta geotekniakoak.

j. kalteberagarritasun klimatikoaren identifikazioa zeinak sortaraz ditzaketen lehen aipatu faktoreek edo beste aspektu batzuk.

2. **Medio fisikoaren antolamenduaren egokitzea** kontutan izanaz LAG-eko kategorietara moldatutako normatiba erregulazioaren lehentasunezko arloen jatorrizko proposamena. Landa-guneentzako baretze eta egokitze irizpide espezifikoak.

Klima Aldaketari dagozkien medio fisikoaren arautzearen lehentasunezko arloak		ingurugiro babesa	aisialdia	baliabide primarioen ustiaketa	azpiegiturak	eraikuntza erabilerak
antolamendu mailak	babes berezia			Hustubide ustiapen konpatibilitatea	iturri berriztagarri bidezko energia sorkuntzaren integrazioarako irizpideak Bertako klimaren eboluzioak geoteknikian dituen efektuen kontsiderazioa	
	ingurugiro hobekuntza					
	basogintza			Ustiapenarenganako eboluzio klimatikoaren kontsiderazioa		Baretze gaitasunaren erredukzioaren minimizatzea
	landa-eremu eta nekazal abelzantza gunea			nekazaritza praktiken baretzera kontribuzioa		
	mendi-larreak					
	erabilera jakin gabekoak			Ber-basotzea hustubide funtzio gisa		Hiri hazkundearen norabide desiragarria
	azal uren babesa			baliabide hidriko eskuragarrien eboluzio afekzioaren kontsiderazioa		
maila gainjarriak	akuiferoen kalteberatasuna		Esparruaren hidrogeologiarengan klimaren eboluzioaren afekzioaren kontsiderazioa.			
	eremu erosiogarrak	Ber-basotzearen lehentasuna negutegi efektuko gasen hustubide gisa, erosioren prebentzioarekin sinergian.				
		Eboluzio klimatikoak erosioren erritmoan duen intzidentziaren kontsiderazioa, eta erabilera suertatu edo onargarriengan duten ondorioak				
eremu urperakorrak	Eboluzio klimatikoak arriskuarengan duen intzidentziaren kontsiderazioa, lurralde antolamendu sektorialarekin koordinazioan					

	natura espazio babestuak eta Urdaibaiko biosfera erreserba	ekosistemen eboluzio klimatikoaren afekzioen kontsiderazioa				
		Baretze neurriak			egokitze neurriak	

3. **Energia eraginkortasun eta CO2 isurpen baliokide determinazioak barne dituzten asentamendu sistemaren antolakuntzara egokitzea, basotzeke diren azaleren hazkunderari atxikitzea, birkokatze klimatikoaren kontsiderazioa hazkunderaren erresidentzia kapazitatearen kalkuluan, bigarren etxebizitza eta lurzoru industrialaren inguruko irizpideak.**
4. **Dagozkien LPS-i loturiko azpiegitura handientzako irizpide definizioa.** Praktika egoki adibideak dira NYC-ko Green Infrastructure Plan (NewYork-ko azpiegitura hidraulikoetan zentratua) edo Britainia eta ipar-europako esperientziak district heating eta isurpen baxuko energia sorkuntzan.
5. **Isurpenen gutxitze eta egokitzea ahalbidetzen duten hiriaren berriztatzeko estrategiarako neurriak,** bereziki hiri bero-irla eta uholde arazoan aurrean, zoladura gabeko hiri espazioek jokatzen duten papera dela eta.
6. **Ondare kultural eta lurralde ekipamenduen antolamendurako irizpideen definizioa.**

6.1.3 Lurralde Plan Sektorialak

Beraien akzio esparruei dagozkien baretze eta egokitze politiken definizioan dute jokatu beharra **Lurralde Plan Sektorialek**. Lehen zentzuaren adibide garbia da Eoliko Lurralde Plan Sektoriala, bigarrenean berriz azpiegitura lineal handiek egokitze behar argi bat dakarte, gizartearentzako gastu handiko aktuazioen klima inpaktua gutxitze aldera bai eta azpiegitura horiek, klima gertakari estremo kasuan, inguruko lurretan sor ditzaketan kalteak ekidite aldera.

Jarduera sektoreak	isurpen % EAE (2009 inbentarioa)	LPS/ dagozkien sektore planak	Baretze eta egokitzeari dagozkien aspektuak
Energia	%40	Energia Eoliko LPS	Handia da sorkuntza berriztagarriak duen isurpen gutxitze potentziala. Hala ere, Ibarburuen basotze eta binkulatutako azpiegituren inpaktuei dagozkien moldaketa irizpideekin konpatiblea izan behar da parkeen kokalekua.
		Sortzeko eta banatzeko beste moduak	Gai honetan ez la LPS-rik, sektorialki burutzen dira instalazio handien erregulazioa baretze terminoetan. Egokitze gaietan gertakari klimatikoaren aurrean azpiegiturek izango duten erresilientzia ziurtatu behar da.
Industria	%22	Ekonomi Jarduera eta merkataritza ekipamenduentza ko Lurzoru Sorkuntza LPS	Sektorialki daude erregulatuak instalazio handien isurpen industrialak. LPP edo AO-ri bidera dakizkieke tamaina txikiagoko instalazioen isurpen erregulazioak. Erabilpen hauetarako kokapen berrien definizioan egokitze irizpideak hartu behar dira kontutan.
Garraioa	%23	Errepide LPS	Aktuazioei atxikitako LPS-ak araututako bideetako trafiko intentsitateari binkulatutako baso baretze kuota baten jazarpena planteagarria da. Egokitze atalean garrantzizkoa da azpiegituraren erresilientzia, bai eta beren presentziak lurzoruengan eduki dezakeen ondorioak (hala nola, uholde arriskua)
		Trenbide LPS	
		garraio sare intermodal eta logistiko LPS	
		Portu LPS	
